

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zergaren eta zaborraren zergaren 2019ko erroldak jendaurrean ipintzea**

Honakoak ordaindu behar dituztenen 2019ko erroldak egin dira:

- Hiri ondasun higiezin gaineko zerga eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezin gaineko zerga.
- Zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.

Aipatutako erroldak jendaurrean jarriko dira, interesdunek egokiak iruditutako erreklama-zioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Halaber, interesdunek errolda horiek udaletxeko idazkaritzan izango dituzte eskuragarri, jendearentzako arreta-orduetan.

Era berean, jende orori jakinarazten zaio araututako epea ordaindu ahal izango direla.

I. Ordaintzeko epea.

a) Hiri ondasun higiezin gaineko zerga eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga.

Borondatezko aldia zorra bi epetan ordainduko da. Bakoitzean, zerga-kuotaren ehuneko 50 ordaindu beharko da.

Lehenengo epea:

Borondatezko epealdia: maiatzaren 1etik ekainaren 30ra.

Premiamendu aldia: uztailaren 1etik aurrera Premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

Bigarren epea:

Borondatezko epealdia: irailaren 1etik urriaren 31ra.

Premiamendu aldia: azaroaren 1etik aurrera. Premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, dirubilketaren indarreko arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

b) Landa ondasun higiezin gaineko zerga eta zaborra biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa.

Araututako epea: 2019ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte.

Premiamendu epea: 2019ko uztailaren 1etik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, halaxe xedatzen baitu indarrean den dirubilketarako araudi orokorrak.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ere ordainketa banku bidez egin dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga helbideratuta zeukaten kontua oraindik ere indarrean badute. Horrelakoetan, udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek araututako epean ordaindu beharko dute udal bulegoan, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara, kreditu txartelarekin. Era berean ordainketa udalak Kutxabanken eta Euskadiko Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egin daiteke.

III. Aholkuak.

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2019ko apirilaren 12an

*Alkatea*

*IOSEBA MIKEL LAS HERAS MARTÍNEZ DE LAPERA*